Ordiziako Udala

2023ITGB0004

Ordizian, **2023ko martxoaren 23a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día* ***23 de marzo de 2023*** *se reúne en el Salón de Plenos la* ***JUNTA DE GOBIERNO LOCAL*** *en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

Maitane Alvarez Garciandia EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jon Ander Caballero Zubeltzu EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Arantxa Fernandez EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Iñaki Dubreuil Churruca PSE-EE (PSOE)

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA**

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

***ASUNTOS TRATADOS***

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

1.- 2023ko martxoaren 9a ohiko bilkurako akta onartzea.

*1. Aprobación de acta de la sesión ordinaria de fecha 9 de marzo de 2023.*

2.- 2022ko Euskara Saileko dirulaguntzak euskara ikasteko.

*2. Subvenciones del Departamento de Euskera para el aprendizaje de euskera en 2022.*

3.- 2022ko Euskara Saileko dirulaguntzak, merkataritzan eta ostalaritzan errotulazioa, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzeagatik.

*3. Subvenciones del Departamento de Euskera 2022 por rotulación, imagen corporativa y colocación de la web en euskera en el comercio y hostelería.*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

| | |
|---|---|
| 4.- Zenbait txosten eta eskaera. | 4.- Informes y solicitudes varias. |
| 5.- Galde-eskeak. | 5.- Ruegos y preguntas. |

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

**.-** Fatxada birgaitzea, fatxaden kanpoaldea isolatzea SATE sistemaren bitartez. (2023OBMH0001)

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

.- Delegazioetan azatertuako gai batzuei buruzko galderak.

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan** **AMAIERA ORDUA: 14:31etan**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Jarraian, Alkate jaunak presazko eraz aurkeztutako gaiaren presazkotasun izaera, bozketan jarri du:

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira
Aldekoak: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
Aurkakoak: 0
Abstentzioak:0

Gaia eguneko gai zerrendan barneratzen da

Segidan, lehendabiziko puntua aztertu da.

**1.- 2023ko martxoaren 9ako bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2023ko martxoaren 9ako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 9 de marzo de 2023***

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 9 de marzo de 2023.***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- 2022ko Euskara Saileko dirulaguntzak euskara ikasteko.**

**TXOSTENA-PROPOSAMENA**

**AURREKARIAK**

-2022ko ekainaren 30ean Tokiko Gobernu Batzarrean, ohiko bilkuran, erabaki zen Euskara arloan 2022an emango diren dirulaguntzak emateko oinarriak eta dirulaguntzen deialdia onartzea eta deialdiaren laburpena argitaratzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean abuztuaren 10ean. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke, BDNS (Identif.): 641888.

-Dirulaguntza hauen oinarrien I. eranskinaren bitartez arautzen dira euskara ikasten edo hobetzen dihardutenei zuzenduriko dirulaguntzak.

-Herritarrek dirulaguntza eskaerak egin zituzten eta abenduaren 15eko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zen baldintzak betetzen zituztenei dirulaguntza ematea eta horietako hiru eskatzaileri akatsak zuzendu arte dirulaguntza ukatzea.
Hori horrela, ondoko herritarrak, M.S.E, ---4612S NAN zenbakidunak, akatsak zuzendu ditu eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu du. Aldiz, C.N.I AIZ: X---234B eta R.S.L.NAN. ---474F ez dute eskatutako dokumentazioa aurkeztu.

-Abenduaren 20an, bestalde, P.M.E.herritarrak, ---7197S NAN zenbakidunak, dirulaguntza eskatu zuen 2022ko urritik abendura bitarte euskara ikasten aritu izanagatik.

Dirulaguntza oinarrien arabera, 2021eko irailetik 2022ko irailera antolatutako ikastaroak lagunduko dira diruz.

**PROPOSATZEN dut:**

1.- M.S.E, ---4612S NAN zenbakidunak herritarraren alde 406 euroko **gastua onartzea, disposatzea eta ordaintzea** 480.02.335.00.0141 2022 partidaren kargura.

2.-**Eskaeran atzera egindakotzat jotzea** errekeritutako dokumentazioa aurkeztu ez duten bi herritar hauen kasuan: C.N.I AIZ: X---234B eta R.S.L.NAN. ---474F.

3.-**Dirulaguntza ukatzea** P.M.E.herritarrak, ---7197S NAN egin duen euskara ikastaroaren epealdia ez datorrelako bat diruz laguntzen diren ikastaroen epealdiarekin.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira
**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2- 2022ko Euskara Saileko dirulaguntzak, merkataritzan eta ostalaritzan errotulazioa, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzeagatik.**

***2.- Subvenciones del Departamento de Euskera 2022 por rotulación, imagen corporativa y colocación de la web en euskera en el comercio y hostelería.***

Proposamena

*Propuesta*

**AURREKARIAK**

-2022ko ekainaren 30ean Tokiko Gobernu Batzarrean, ohiko bilkuran, erabaki zen Euskara arloan 2022an emango diren dirulaguntzak emateko oinarriak eta dirulaguntzen deialdia onartzea eta deialdiaren laburpena argitaratzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean abuztuaren 10ean. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke, BDNS (Identif.): 641888.

-Dirulaguntza hauen oinarrien III. eranskinaren bitartez arautzen dira merkataritzan eta ostalaritzan errotulazioa, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzeagatik ematen diren dirulaguntzak.

-Bi eskaera jaso dira 2022ko abenduan irudi korporatiboa euskaraz jartzeagatik eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu dute: M.S.M. (Gofi Berri) otsailaren 15ean, eta I.A.L. (Kixmi) otsailaren 10ean.

-Dirulaguntzen oinarrien III.eranskineko 6. artikuluan , Eskabideak aurkezteko epeari buruzkoa, horrela dago jasota: *2022 urtean burututako ekintzen eskabideak abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Hala ere, dirulaguntzaren xedea dena azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten denean epea bi hilabetetan luzatuko da, 2023ko otsailaren 28ra arte.*

-M.S.M. (Gofi Berri) 600,16 euroko gastua egin du eta eta I.A.L (Kixmi) 304 euroko gastua. Dirulaguntzen oinarrien arabera kostuaren %50 lagunduko du Udalak, gehienez ere 120€.



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**PROPOSATZEN dut:**

1.- M.S.M. (NAN: ---4753C) 120 euroko **gastua onartzea, disposatzea eta ordaintzea** 1 471.01.335.00.0141 2022 partidaren kargura.

2.- I.A.L herritarraren alde (NAN: ---751N) 120 euroko **gastua onartzea, disposatzea eta ordaintzea** 1 471.01.335.00.0141 2022 partidaren kargura.

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

**Fatxada birgaitzea. ATXADA BIRGAITZEA, FATXADEN KANPOALDEA ISOLATZEA SATE SISTEMAREN BITARTEZ.**

**ESKATZAILEA: JABEKIDEAK-BUZTUNTZA ETXALDEA 4-5-6**

Miguel Egea Calabor jaunak eskatuta (R.E.: A/23-00051), izapidetutako espedientea, BUZTUNTZA ETXALDEA 4-5-6ko JABEKIDEEN ERKIDEGOAren izenean eta ordezkaritzan SATE sistemaren bidez kanpoaldetik isolatuta dagoen fatxada birgaitzeko. Horretarako, Buztuntza Etxaldeko Sistema Sate 4-5-6ko fatxaden kanpoaldea isolatzeko

***REHABILITACION FACHADA, AISLAMIENTO EXTERIOR DE FACHADAS MEDIANTE SISTEMA SATE***

***SOLICITANTE: JABEKIDEAK-BUZTUNTZA ETXALDEA 4-5-6***

*El expediente tramitado a instancias de Miguel Egea Calabor, en nombre y representación de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DE BUZTUNTZA ETXALDEA 4-5-6 con R.E.: A/23-00051, para rehabilitación de fachada con aislamiento exterior mediante sistema SATE presentando para ello "Proyecto de Aislamiento Exterior de Fachadas*

proiektua aurkeztu zuen, Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak bisatua 2023ko urtarrilaren 3an.

Udal Arkitekto Teknikoaren aldeko txostena, 2023ko martxoaren 13koa.

*Sistema Sate en Buztuntza Etxaldea 4-5-6" y visado por el Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos en fecha 3 de enero de 2023.*

*El informe favorable de la Arquitecta Técnica Municipal de fecha 13 de marzo de 2023.*

**PROPOSATZEN dut:**

***PROYECTO DE ACUERDO:***

BUZTUNTZA ETXEALDEA 4-5-6 JABEKIDEEN ERKIDEGOARI eskatzen duen obra-lizentzia ematea, aurkeztutako proiektuaren arabera eta honako baldintza hauek betez gero:

- **Honako agiri hauek ekarri beharko dituzte obra hasi aurretik:**

  a. Obrako zuzendari fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko da.

  b. Aseguru-polizaren egiaztagiria (kopia), mugakide diren etxeetan, ondasunetan eta pertsonetan eragindako kalteei aurre egiteko dena.

  c. Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza, **3.498,19** eurokoa.
  Bermearen zenbatekoa Udalak duen kontuan jarri beharko da **obrak hasi aurretik**, kontu zenbakia hau da:
  **Kontua: 20955073041060024857**

*Conceder a la* ***COMUNIDAD DE PROPIETARIOS*** **BUZTUNTZA ETXEALDEA 4-5-6** *la licencia de obras que solicita, conforme al proyecto presentado y condicionada al cumplimiento de los siguientes extremos:*

- ***Previo al inicio de obra se deberá presentar en estas dependencias:***

  *a. La notificación del nombramiento de la dirección facultativa de la obra.*

  *b. El justificante (fotocopia) de la póliza de seguro, que cubra los riesgos de daños a edificios colindantes, bienes y personas.*

  *c. La fianza requerida en el Decreto 112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por la cantidad de* ***3.498,19 €.***
  *El importe de la garantía deberá depositarse en la cuenta del Ayuntamiento antes del inicio de las obras, siendo el número de cuenta:*
  ***Nº Cta.: 20955073041060024857***

**BALDINTZA PARTIKULARRAK:**

1. Obra hasi baino lehen, aldamioaren proiektua aurkeztu beharko da.

2. Ordiziako Arau Subsidiarioetako 3.2.17. artikuluaren arabera, eraikinen fatxadek

***CONDICIONES PARTICULARES:***

*1. Antes de iniciar las obras, se deberá presentar proyecto de andamio.*

*2. Las fachadas de las edificaciones deberán ser objeto de un tratamiento*

tratamendu arkitektoniko bateratu eta homogeneoa izan beharko dute.

*arquitectónico unitario y homogéneo tal y como se recoge en el artículo 3.2.17. de las Normas Subsidiarias de Ordizia.*

**BALDINTZA OROKORRAK:**

1. Ekarritako dokumentazioaren arabera egingo dira lanak.
2. Baimena jaso eta **hiru hilabeteko epean ekingo zaie lanei**, eta **bederatzi hilabeteren buruan egon beharko dute erabat bukatuta**. Obrari ekin gabe epe hori igaroz gero, iraungitzat edo bukatutzat emango da baimen hori. Obra hori ezingo da hilabete bat baino gehiagoz eten.
3. Istripuak ekiditeko behar diren segurtasun eta babes neurriak hartu beharko dira.
4. Obren kontratista esleipendun guztiek egunean izango dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.
5. Lan guztiak egiteko, oinezkoen eta langileen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz egingo dira.
6. Laneko Osasuna eta Segurtasunari buruz indarrean dauden Lege-Arau guztiak beteko dira, bereziki 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena; baita bere aldaketak, eta hauekin bat datozen xedapenak eta

***CONDICIONES GENERALES:***

1. *Que los trabajos se desarrollarán en base a la documentación presentada.*
2. *Las obras **se iniciarán dentro del plazo de tres meses** a contar desde la notificación de la autorización y **deberá ser finalizada** en su totalidad en el **plazo máximo de nueve meses**. Transcurrido dicho plazo sin haber iniciado la obra, se entenderá la licencia caducada o finalizada. Dicha obra no se podrá interrumpir por un plazo superior a un mes.*
3. *Deberá tomar las medidas de protección y seguridad necesarias, para evitar accidentes.*
4. *Todo contratista adjudicatario de las obras, estará al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.*
5. *Todos los trabajos se realizarán tomando las medidas necesarias para garantizar la seguridad de los peatones y trabajadores.*
6. *Se cumplirá con todas Normas Legales Vigentes sobre Salud y Seguridad en el Trabajo, en particular el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción, la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención; así como*

aplika daitekeen prebentzio arloko beste edozein arau ere.

7. Obran enpresa batek baino gehiagok edo hainbat langile autonomok parte hartzen badute, SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILE bat izendatu beharko da.

8. Lanek dirauten bitartean, saihestu egingo da objektuak edo partikulak bide publikora jaurtitzea, eta neurri egokiak hartuko dira oinezkoek eta ibilgailuek kalterik ez jasateko.

9. Obra egiteko baimenduta dagoen ordutegia honako hau da: 8:00 – 20:00 (lanegunetan) eta 8:00 – 14:00 (larunbatetan). Jai egunetan ezingo da obrarik egin.

10. Obran AMIANTOA duten materialak agertzen badira, obra gelditu egin beharko da, eta martxoaren 31ko, 396/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatuko dira, AMIANTOAREN eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.

**11.** Eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan zehaztutakoaren arabera kendu eta kudeatu beharko dira eraispen eta eraikuntza hondakinak eta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua, Eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena kontutan hartu beharko da.

**Hondakinak behar bezala kudeatzeko**

*sus modificaciones, disposiciones concordantes y cualquier otra norma de ámbito preventivo aplicable.*

*7. Si en la obra participan más de una empresa o varios trabajadores autónomos se deberá designar un COORDINADOR DE SEGURIDAD Y SALUD.*

*8. Durante los trabajos se evitará la proyección de objetos o partículas a la vía pública, tomando las medidas oportunas para evitar que los viandantes y vehículos se vean afectados por la caída de objetos.*

*9. El horario permitido para ejecución de obra es de 8:00 horas a 20:00 horas los días laborables y de 8:00 horas a 14:00 horas los sábados. En días festivos no se podrán ejecutar.*

*10. Si en la obra aparecen materiales que contengan AMIANTO, se deberá parar la obra y serán gestionados según el Real Decreto 396/2006, de 31 de marzo, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud aplicables a los trabajos con riesgo de exposición al AMIANTO.*

*11. La retirada y gestión de los residuos de la demolición se realizará de acuerdo a lo establecido en el Real Decreto 105/2008, de 1 de Febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición y de acuerdo al Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición en el País Vasco.*

***El presupuesto presentado para la***

**aurrekontua 2.915,16 eurokoa da. Obran sortutako hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, hondakin horien kudeaketaren kostuaren %120ko fidantza ezarri beharko da, hau da, 3.498,19 euro.**

***correcta gestión de residuos asciende a 2.915,16 €. Con el fin de garantizar la adecuada gestión de los residuos generados en la obra se deberá imponer una fianza del 120% del coste de la gestión de dichos residuos, es decir, 3.498,19 €.***

12. Kalean kontainerrak jarri behar badira, Udaltzaingoarekin harremanetan jarri beharko da (Tel. 943 80 56 16), kokalekua, seinaleak eta segurtasun neurriak erabakitzeko.

*12. En caso de tener que colocar contenedores en la calle, deberá ponerse en contacto con la Policía Municipal (Telf.: 943 80 56 16), a fin de determinar su ubicación, señalización y medidas de seguridad.*

13. Kontainerrak asteburuetan edo jai bezperan kendu egin beharko dira.

*13. Los contenedores deberán ser retirados los fines de semana o vísperas de festivo.*

14. Obra materialak kalean utzi behar badira, horretarako udal baimena eskuratu beharko dute.

*14. En caso de almacenarse materiales de obra en vía pública se deberá contar con la autorización municipal para ello.*

15. Erabat debekatuta dago kalean masa eta obrako lanak egitea.

*15. Está expresamente prohibido hacer masa y trabajos de la obra en la vía pública.*

16. Areka, estolda-zuloak eta orokorrean, kale guztia beti garbi eduki beharko dira

*16. Deben mantenerse continuamente limpias las cunetas, sumideros y en general toda la vía pública.*

17. Bide publikoan Aldamioak muntatzeko, pertsonen plataforma jasotzaile mugikorrak erabiltzeko edo obra egiteko beharrezkoa den beste edozein okupazioa egiteko, aurretik Udaltzaingoarekin harremanetan jarri beharko da (Tel.: 943 80 56 16), zehazteko erabili beharreko eremua, la eremua nola mugatuko duten, bere seinaleztapena eta beharrezkoak diren segurtasun neurriak saihesteko obrarekin zerikusirik ez duten pertsonak eta ibilgailuak bertan ez daitezen egon

*17. Previa a la reserva de la vía pública para el montaje de andamios, el uso de plataformas elevadoras móviles de personas o cualquier otra ocupación necesaria para realizar la obra, se deberá contactar con la Policía Municipal (Telf.: 943 80 56 16), a fin de determinar el espacio a utilizar, la delimitación de la zona de trabajo, su señalización y las medidas de seguridad necesarias para evitar que personas y vehículos ajenos a la obra permanezcan o*

edo ibili.

18. Aldamioak muntatzeko, erabiltzeko eta desmuntatzeko plana eduki beharko da obran. Muntatu, desmuntatu edo aldatuko dira, unibertsitate prestakuntza duen pertsona bat edo horretarako gaituta dagoen profesional baten zuzendaritzapean.

19. Obrak hasi baino lehen, Aldamioaren muntatzeko, erabiltzeko eta desmuntatzeko plana aurkeztu beharko da Udalean.

20. Obretan bide-seinaleak behar direnean, euskaraz eta gazteleraz jarriko dira eta euskara erabiliko da bi hizkuntzen grafia antzekoa denean eta nazioarteko sinbolo /piktogramak darabiltzaten iragarkien kasuan (Euskararen erabilera arautzen duen ordenantzaren 18. artikulua). Euskaratzeko Udalaren doaneko zerbitzua: 943 80 56 22. Baldintza hau ez betetzeak emandako lizentzia bertan behera uztea ekarriko du.

21. Lizentzia aurkeztutako dokumentazioan adierazitako obrak egiteko bakar-bakarrik emango da, eraikinaren jabeari; eta **obra horiek ez dute inolako eraginik izango ez egituran, ezta eraikitako azaleran ere**.

22. Edonola ere, gogorarazten da ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 211. artikuluaren arabera, hirigintzako lizentzia emateak dituen ondorioak ezartzen dituena, lizentziak, beti, jabego eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe

*circulen por las misma.*

*18. Para el montaje de andamios, se deberá de disponer en obra del Plan de montaje, utilización y desmontaje. Serán montados, desmontados o modificados sustancialmente bajo la dirección de una persona con una formación universitaria o profesional habilitado para ello.*

*19. Antes de iniciar las obras, se deberá presentar Plan de montaje, utilización y desmontaje de andamios en el Ayuntamiento.*

*20. Cuando sea necesaria la señalización vial alternativa, la misma se realizará en euskera y castellano, y se utilizará el euskera en caso de grafía similar en los dos idiomas así como en caso de anuncios que utilicen pictogramas/símbolos internacionales (Artículo 18 de la ordenanza de normalización del uso del euskera). Servicio gratuito de traducción del Ayuntamiento: 943 80 56 22. El no cumplimiento de esta condición traerá la suspensión de la licencia concedida.*

*21. Esta licencia se concede única y exclusivamente para realizar las obras detalladas conforme a la documentación presentada y **no afectarán a la estructura ni a la superficie construida.***

*22. En todo caso, se recuerda que según el artículo 211 de la Ley 2/2006 de 30 de junio Suelo y Urbanismo, que regula los efectos del otorgamiento de las licencias urbanísticas, las licencias se conceden siempre a salvo del derecho de propiedad y sin*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

ematen direla.

*perjuicio de terceros.*

**Bigarrena.-** Lanak amaitutakoan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Obra amaierako ziurtagiria, obra zuzendaritzak sinatua, egiaztatzen obrak bat datozela aurkeztutako proiektuarekin eta lizentziako baldintzekin.
2. Behin-betiko egoeraren planoa eta argazkiak.
3. Obra amaierako behin-betiko likidazioa, edo gremio guztien fakturen kopiak.
4. Sortutako hondakinen kudeaketa egokia egiaztatzeko, azken txosten aurkeztu beharko da, 112/2012 Dekretuaren III. Eranskinaren arabera. Txosten hori aurkeztu beharko da fidantza itzuli ahal izateko.

***Segundo.-** Tras finalizar los trabajos se deberá presentar la siguiente documentación:*

1. *Certificado de fin de obra, firmado por la dirección de obra, que acredite que las obras se ajustan al proyecto presentado y a las condiciones de la licencia.*
2. *Plano de estado definitivo y fotografías del estado reformado.*
3. *La liquidación definitiva de fin de obra, o copias de las facturas de todos los gremios.*
4. *A fin de acreditar la correcta gestión de residuos generados, se deberá presentar informe final, de acuerdo al Anexo III del Decreto 112/2012. Será necesario aportar este informe para que se proceda a la devolución de la fianza.*

**Hirugarrena.-** Titularrari jakinaraztea.

***Tercero.-** Comunicar al titular.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira
**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak/**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**8.- Galde-erreguak**

Iñaki Dubreuil Zinegotziak Zerbitzuetako delegaritzaren martxoak 1eko aktaren inguruan galdera hauek egiten ditu:

1.- 2. Puntuaren inguruan espedientearen berri ematea eskatzen du.

Alkateak erantzuten dio Zuhaiztiko obraren inguruko espedientea dela eta egun eskaileretan zuzenketak egiten dabiltzela baina aurrera doala.

2.- 7. Puntuaren inguruan galdetzen du.

Alkateak adierazten dio jada subsanazioa eman dela.

3.- 13. Puntuan 2022KEXA0034 espedientearen egoera galdetzen du.

Alkateak erantzuten du ikuskaritzaren akta hartu beharko dela eta 2024 urtean amaitzen den emakidaren inguruan azterketa juridiko sakona egin behar dela. Bestalde Biziolarekin lur horien erabileraren inguruko azterketa egiten ari da udala.

Arantxa Fernandez zinegotziak hitza eskatzen du eta garbitzaileen mugikortasun edo errotazioaren inguruan galdetzen du.

Alkateak adierazten du Zerbitzu Buruak langileak motibatzeko mugikortasun horren aldeko apustua egin duela, bestalde horren funtsa egonkortze prozesua dela. Baina aintzat hartuko da zinegotziaren kezka eta jarraipena egingo da.

***8.- Ruegos y preguntas***

*El Concejal, Iñaki Dubreuil, solicita aclaraciones de temas del acta de la Delegación de Servicios de fecha 1 de marzo:*

*1.- Solicita que se informe sobre el punto 2 del acta.*

*El Sr.alcalde le responde que el expediente corresponde a las obras de Zuhaizti y que se están hacienda correcciones en las escaleras, pero está en marcha.*

*2.- Pregunta por el punto 7.*

*El alcalde le indica que ya se ha dado la subsanación.*

*3.- En el punto 13 pregunta por la situación del expediente 2022KEXA0034.*

*El Alcalde responde que habrá que tomar acta de la inspección y hacer un análisis jurídico exhaustivo de la concesión que finaliza en 2024. Por otro lado, el ayuntamiento está realizando un estudio sobre el uso de estos terrenos con Biziola*

*La concejala Arantxa Fernández pide la palabra y pregunta por la movilidad o rotación de las trabajadoras de la limpieza.*

*El Sr. Alcalde señala que el Jefe de Servicio ha apostado por esta movilidad para motivar al personal y que la esencia del mismo es el proceso de estabilización. Pero se tendrá en cuenta la preocupación de la concejala y se hará un seguimiento.*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

| | |
|---|---|
| **Sinatzaileak** Firmantes | **ALKATEAK /** EL ALCALDE<br>Adur Ezenarro Agirre<br>**ORDEZKO IDAZKARIA 2022/1331 Dekretu bidez /** SECRETARIA POR SUSTITUCIÓN vía Decreto 2022/1331<br>Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave |
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAENV28.pCju |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus